

COOPERATIVA L.A.N.A.

Leniz, Arrasate ta Aramayonako Nekazariok Alkartu, auxe entzuen ta entendidu bear duzu L.A.N.A. entzuten dozunian. Nekazarien alkartasun orixe egiteko sortu da gure artean COOPERATIVA L.A.N.A.: jayo da ta orain azi egin nai dau.

Barri auxe amotera natorkizu gaur zure eskuetara. Orain arte LANA, ren barrik jakin ez ba-duzu, txarttzat ez artusez da izan ixillian ibiltea besteak aintzat artu nai izan ez doguzalako: nekazari danak aintzat artu gura izan dituku eta zeuk ikusiko duzu gure zoziedade onetako legia olaxe eginda degola.

Onako arazuetan iskanbilla gelegi ateratzea eragozpenak sortzeko geiagotan izaten da erreztasunean ibiltzeko baño. Orixegaitik NEKAZARI taldetxu bat ibilli gara lenengo zeregin onetan eta legezko gauza guztiak erabagita gero, danoi agertzea gura izan dogu.

Egia esan sail onek aspaldi asi genduzan: GUREA pelotatokian egin genduzan batzarretan asi genduan sail au eta danok dakizue, batzar orreik danei deituta egin zirala.

ALKARTASUN billa gabiltz: alkartasun indar ori lortzea gura dogo LANA Kooperatiba onetan: ortik asiko gara eta beste gauzak berez-berez etorriko dira alkartzen garenean.

77777777

LANA, ren atea beti zaballik egongo dira alkartasuna eta aurrerapidea gura dabezan nekazarietzat. Onekin esan nai dogu zoziedade au ez dala sortu talde txiki baten onerako. Baña ez dugu pentsau bear danok alkartu arte gora begira egongo garanik. Ez. Gu baguaz aurrera gure tartean aurrera egitea gura dabenak artuta. Eganda dago gure legea eta gure lege orretan ikusi lezake edozeñek zeitzuk diran eginbearrak eta eskubideak.

¿Zer egingo ete dogu?

Auxe izango da askok jakin nai dabena eta guk orain esan ezin genezakena.

LANA, kuok guaz geure nezesidadeak erabagitera eta orretarako gauza asko egin bearko ditugu. Orix da guk esan genezakena: geure gauzak geure tartean, geure indarrakin erabagitera guazela. Orretarako borondatea euki bear da: borondatea eta eskuarte bearko ditugu. El diguna egingo dugu.

Batzeko zabaldu egin bear izaten da: artzeko lenengo erein egin bear izaten dogu eta gure sail onetan, be, orixe egingo dogu: lenengo erein, lenengo oñarria sortu batasunaren bidez.

Lagunak topatuko ditugu: bear ditugun lagunak. Geuk ikusiko dugu zerk palta egiten daukun eta billatuko dugu bear duguna.

+++++

Bein baño geiagotan egon gara pentsatzen nekazariok aisbeste lan egiten dogula eta beste batzuen neurrian ezin gerala bizi. Gure nekazari lanak baño ugariagoak eta irzabazpide geiaagokoak dirala pabriketako lanak.

Begiratu dagigun pabrika onetan zelan lan egiten dan.

Lan egiten da bakotzak komeni jakozan tresnak erabillita: guk ostera besoakin eta antxiña-anxiñako tresnakin, erramitenkin. Pabriketan bakotzak ez dau buruak emoten dautzana egiten, baizik danen onerako dana. Pabriketan egiten dana saldu egun bear izaten da eta salduarazi izateko bear dan organizazian izaten dabe. Gure pabriek diru edo kapital aundiak bear izaten ditue eta ez daukenian batzuek, beste batzuei, bankuei e katu. Guk ostera pentsatzen dugu kapitalk ez duasukula paltarik egiten eta geuk daukaguna be iñori emoten dautzogu.

Guk geure buruak jaso al izateko beste burubide bat artu bear dugu eta auxe da alkartasun eta zoziedade onen bidez lortu gura doguna.

888888888

LANA, ri asiera emon dautsenak onetxek dira:

- | | |
|------------------------------|-------------------------------|
| Vicente Barrutia Zuazubiscar | Timoteo Echave Garay |
| Sabino Garay Arregui | Felix Gorosabel Velar |
| Santiago Arana Ezpeleta | Agustin Gallastegui Lamarain |
| Luis Gorosabel Velar | Benigno Zuazubiscar Eriz |
| Feliciano Echave Arroyabe | Victoriano E. haguibel Urizar |
| Dionisio Lazpiur Azcarate | Martin Bengoa Urrutia |
| Jesus Arizmendi Arrieta | Pedro Ezpeleta Urquia |
| Miguel Lasaga Sologuren | |
| Pio Garay Echave | |

LANA, ko agintariak izentatzeko edo JUNTA RECTORA jartzeko, LANA, n sartu diranak eurai ondo eristen dautsenak nonbratu bear ditue. Eta orretarako jarri bear dira bederatzi gizon eta izango dira borobik geien daukenak. Botaziño au egiteko bakotzak KURUTZA bat ipiñi begio aurreko izenei edo ipiñi begi beste izenen batzuek papel onetan: izen onek zosio izateko gertu dagozenenak izan bearko dabe.

Il onen amaikan, egubakotxean, COOPERATIVA DE SAN JOSE, ko bigarren pisuan arratsaldeko sei ta erdietan egingo da batzarra eta izentatuko da Junta barria.

Juantakuegaz gañera izentatu bear dira iru, beste iru, kontuak ikusi eta kontuen barri zosiuei emon al izango dautzenak. Orinbe pentsau ta euki bear da eta izenak, orretarako egokienak eristen dautseguenenak PUNTO bat aurrian jarrita eruen.

Aurrera egiteko LENIZ; ARRASATE TA ARAMAYONAKO NEKAZARIOK ALKARTU.

LANA, k besuak zabalik daukaz.